

# BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1869

*AGINDUA, 2016ko apirilaren 14koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015-2016 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziak arautzeko dena.*

Batxilergoko Sari Nazionalak arautzen dituen uztailaren 13ko EDU/2058/2010 Aginduaren bidez, Batxilergoko Sari Bereziak sortu nahi dira, Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehazten diren batxilergoko modalitateetako edozein aprobetxamendu bereziz burutu duten ikasleak saritzeko. Gainera, haren laugarren artikulua xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoak Batxilergoko Sari Bereziak deitu eta eman ahal izango dituela.

Otsailaren 19ko 166/2013 Dekretuak, 35/2011 martxoaren 15eko Dekretua aldatzen duenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko Sari bereziak arautzen ditu, eta horiek emateko baldintzak ezartzen. Proba urtero deituko dela xedatzen du lege horrek, eta urteroko deialdiak nola gauzatu behar diren ere azaltzen du.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren xedea da 2015-2016 ikasturtean Batxilergoko ikasketak ibilbide akademiko bikain batekin burutu dituzten ikasleen esfortzua eta lana onartzea eta sustatzea.

Horretarako, eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren proposamenari jarraikiz, honako hau

## XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Agindu honen xedea da Batxilergoko Sari Bereziak deitzea 2015-2016 ikasturterako, agindu honen oinarriekin bat etorriz.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek aurreikusten ez duenerako, bi hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da: uztailaren 13ko EDU/2058/2010 Agindua eta martxoaren 15eko 35/2011 Agindua, otsailaren 19ko 166/2013 Dekretuak aldatua, hor baitaude beren oinarri arautzaileak. Era berean, agindu honek aurreikusten ez duenerako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea ezarriko da. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Printzipio Antolatzaileen Legearen Testu Bateratuak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak, VI. tituluan xedatutakoaren arabera arautuko da deialdi-agindu hau, aginduan bertan ezarritakoa betetzeaz gain.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabete bateko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorrituz, sarien deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Batxilergoko Sari Berezia» izeneko fitxategi batean sartuko dira deialdi hau kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara, hain zuzen ere: Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren egiaztatzeko beste erakunde publiko batzuetan.

## AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 14a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## 2015-2016 IKASTURTEKO BATXILERGOKO SARI BEREZIEN DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehenengoa.– Xedea eta aplikazio-eremua.

2015-2016 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziarako deialdia egiten da, uztailaren 13ko EDU/2058/2010 Aginduan, martxoaren 15eko 35/2011 Dekretuan – otsailaren 19ko 166/2013 Dekretuaren bidez aldatu – eta deialdi honetan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.– Baldintzak.

Ikasleek, deialdian parte hartzeko, Batxilergoko edozein modalitateko bigarren maila EAeko ikastetxeren batean eginda eta gaindituta izan beharko dute, presentziazko edo urrutiko erregimenean. Modalitate horiek Hezkuntzarako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarrita daude. Ikasleek Batxilergoko bi ikasturteetan gutxienez 8,75 puntuko kalifikazioa izan beharko dute, batez beste.

Hirugarrena.– Sarien kopurua.

1.– 2015-2016 ikasturtean Batxilergoko 15 Sari Bereziarako deia egiten da EAEn.

2.– Batxilergoko Sari Berezia lortzen dutenek egiaztagiria jasoko dute. Gainera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatzen duen bidaia-programan parte hartu ahal izango dute, ingelesezko ikastaroak atzerrian egiteko, dagokion deialdian zehaztutakoaren arabera.

3.– Sari Berezia jasotzen duten ikasleak Batxilergoko Sari Nazionala jasotzeko hautagai izan daitezke, aurrez horretarako izena emanaz gero beti ere, Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako Estatuko dituen Idazkaritzaren Ebazpenak ezarri dituen baldintzak betetzen badira.

Laugarrena.– Izena emateko prozedura eta epea.

1.– Batxilergoko bigarren mailari dagokion azken ebaluazioko saioa egin ondoren, eta ikasleei azken kalifikazioak jakinarazi eta gero, ikastetxeek agindu honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen dituzten ikasleei informazioa emango diete Batxilergoko Sari Bereziara aurkezteko aukerari buruz.

Deialdi honetan aurreikusitako data eta jardueren egutegia I. eranskinean jasota dago.

2.– Agindu honen bigarren oinarrian xedatutako baldintzak betetzen dituzten eta Batxilergoko Sari Berezia jasotzeko hautagai izan nahi duten ikasleek, izena eman nahi badute, «on line» eska-bidea aurkeztu beharko dute beren ikastetxeko idazkaritzan, II. eranskineko ereduari jarraituz, Hezkuntza Administrazioak horretarako prestatuko duen aplikazioaren bidez.

Ikasle bakoitzak dagokion ikastetxearen idazkaritzan aurkeztuko du eskabidea, behar bezala sinatuta, eta hark sarrera-erregistroa emango dio.

3.– Halaber, ikastetxeak Batxilergoko bi ikasturteen egiaztagiri akademiko ofiziala egingo du ikasle bakoitzarentzat, horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bidez, honako datu hauek adierazita: Batxilergoko modalitatea, ikasgaietan lortutako kalifikazioak eta ateratako batez besteko nota (erlijioa kontuan hartu gabe), III. eranskineko ereduari jarraituz.

4.– Hautagai bakoitzak sinatutako eskabidea eta ikastetxeko zuzendariak behar bezala bete eta sinatutako agiri akademikoa ikastetxeko idazkaritzan gordeko dira, probaren epaimahaiaren

eskura. Epaimahai horrek dokumentazio hori eskatu ahal izango du, bai proba egiten den bitartean, bai proba amaitu ostean.

5.– Minusbaliotasunen bat duten ikasleek proba egiteko egokitzapenen bat behar badute, II. eranskinean aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

6.– Izena emateko epea amaitu eta hurrengo egunean, ikastetxe bakoitzak iragarki-taulan argitaratuko du izena eman duten ikasleen zerrenda, IV. eranskineko ereduaren arabera.

7.– I. eranskinean adierazitako egunean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian argitaratuko da onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda, eta baztertutakoen kasuan adieraziko da horren zergatia eta zer epe dagoen balizko akatsak edo adierazi gabeko datuak zuzentzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen uztailaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua arabera.

8.– Epaimahaiburuari bidalitako balizko akatsak edo adierazi gabeko datuak zuzentzeko epea bukatu ostean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian argitaratuko da onartutako ikasleen behin betiko zerrenda, bai eta, hala badagokio, baztertutako ikasleena ere, erabaki hori zergatik hartu den adierazita.

9.– Sarituren batek agindu honetan jasotako baldintzaren bat betetzen ez badu, saria galduko du, eta sari hori puntuaziorik altuena lortu duen hurrengo hautagaiari emango zaio.

Bosgarrena.– Probaren edukia eta balioestea.

1.– Batxilergoko Sari Berezia jasotzeko hautatutako ikasleek euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dute proba, eskabidean eskatutakoari jarraituz.

Probaren egitura honako hau izango da:

Lehen zatia:

Batxilergoko 2. mailan dagokion modalitateko irakasgai gisa egindako hiru irakasgaietako batean jasotako edukiei buruzko galderei erantzutea edo ariketa praktikoak ebatzea idatziz, izena emateko II. eranskinean jasota daudenen artean parte-hartzaileak egindako aukeraren arabera.

Bigarren zatia:

a) Gai orokor bati buruzko testu bati buruzko idazlana eta/edo iruzkina; testua zientifikoa edo literarioa izango da, gaztelaniaz edo euskaraz idatzia (parte-hartzaileak izena emateko eskabidean adierazitako aukeraren arabera).

b) Gai orokor bati buruzko testu baten gaineko idazlana eta/edo iruzkina; testua zientifikoa edo literarioa izango da, Batxilergoko 2. kurtsoan nahitaezko irakasgai gisa ikasitako atzerriko hizkuntzan idatzia. Hiztegiarik gabe egingo da ariketa, dagokion hizkuntzan.

2.– Honako hau balioetsiko da ariketetan: erantzunak zuzenak izatea, garbi eta ongi azalduta egotea, ongi egituratuta, hiztegia egokia izatea, eta hizkuntza behar bezala erabiltzea.

3.– Epaimahaiak ez dio hautagaiari aukerarik emango aurrez izena emateko inprimakian aukeratutako irakasgaiak edo proba-aukerak aldatzeko.

4.– Probako ariketa bakoitza 0tik 10era bitarteko puntuekin balioetsiko da, bi hamartarrekin gehienez ere. Saria jasotzeko aukera izateko, ariketa bakoitzeko kalifikazioa gutxienez 5,00 puntukoa izango da, eta guztira 32 puntutik gorakoa.

5.– Probaren azken kalifikazioa honela kalkulatu da: lehenengo zatiko ariketan (modalitateko gaia) lortutako kalifikazioa bider bi, gehi bigarren zatiko ariketetan lortutako kalifikazioen batura.

6.– Sariak proban lortutako kalifikaziorik altuena lortzen duten hautagaiei emango zaizkie.

7.– Berdinketarik egonez gero, lehenengo, bigarren eta hirugarren ariketetan eskuratutako puntuazioa hartuko da kontuan, ordena horretan. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da; epaimahaiko presidentek emango du horren berri.

8.– Ariketak anonimoak izango dira, eta dagozkion neurriak hartu beharko ditu epaimahaiburuak hori bermatzeko.

9.– Deialdi honetan, honela banatuko da ariketak egiteko denbora:

Ariketak	Iraupena
Lehen zatia	90 minutu
Atsedena	30 minutu
Bigarren zatia	120 minutu

Seigarrena.– Proba egitea.

1.– Proba, EAerako bakarra, I. eranskinean adierazitako egoitzan, egunean eta orduan egingo da.

2.– Proba egiteko, hautagaiek beren NAN, AIZ edo beste egiaztagiri bat ekarri beharko dute, bai eta probaren ariketak egiteko behar diren tresnak ere, V. eranskinean ezarritakoaren arabera.

3.– Hala eta guztiz ere, epaimahaiak komenigarria dela iritziz gero, aurreko puntuak zabaltzen dituen informazio gehigarriaren berri emango du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian.

4.– Proba egin aurretik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian argitaratuko dira ariketa bakoitzaren ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

5.– Agindu honi lotutako informazio guztia Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian hedatuko da: [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus), Ikasleak - Batxilergoko Sari Bereziak atalean edo [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/akademik](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/akademik) atalean.

Zazpigarrena.– Kalifikazioak argitaratzea.

1.– Notak kontsultatzeko parte-hartzaileek horretarako prestatutako aplikazioan alta hartu behar izango dute, erabiltzailea NANaren zenbakia eta pasahitza haren iraungitze-data erabilita.

2.– Epaimahaiak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian argitaratuko ditu behin-behineko kalifikazioak, I. eranskinean adierazitako egunean.

Balitzko alegazio eta/edo akatsak zuzendu ostean, Hezkuntza Sailaren web-orri berean argitaratuko dira behin betiko kalifikazioak, baita saritzeko proposatutako izangaiak ere.

3.– Epaimahaiak sari-kopuru jakin bat proposatuko du guztira (deialdi honetan adierazitakoa, gehienez ere).

Zortzigarrena.– Erreklamazioak.

1.– Ikasleek edo haien legezko ordezkariak, adingabeak izanez gero, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote epaimahaiburuari, I. eranskinean ezarritako epean.

2.– Erreklamazioek arrazoituak izan beharko dute, eta Hezkuntza Administrazioak deialdi hau kudeatzeko sortutako aplikazioaren bidez egin beharko dira.

3.– Erreklamazio-eskaera eragin duten ariketak berrikusi egingo dira, galdera guztiak ebaluatu direla eta horretarako ebaluatzeko irizpide orokorrak eta zuzentzeko berariazko irizpideak ongi aplikatu direla ziurtatzeko. Gainera, azken nota kalkulatzekoan akats materialik ez dagoela egiaztatuko da.

Bederatzigarrena.– Ebazpena.

1.– Deialdia Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ebatziko du, epaimahaiak proposatuta. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hiru hilabeteko epean ez bada ebazpenik jakinarazi, eskaerak ezetsizat jo daitezke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 44.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Ebazpen horren aurka, gorako errekurtsioa jar dezakete interesdunek, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 114. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

## I. ERANSKINA

Jardueren egutegia. 2015-2016 ikasturtea

Maiatzaren 1. hamabostaldia	2015-2016 ikasturterako Batxilergoko Sari Bereziak deitzen dituen Agindua argitaratzea EHAAn
Maiatzaren 30etik - ekainaren 2ra, biak bame	Hautaprotetan parte hartuko duten ikasleen izena ematea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orriko aplikazioan
Ekainaren 3an	Probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda argitaratzea Hezkuntzaren web-orrian
Ekainaren 6ra (14:00ak arte)	Alegazioak aurkeztea probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrendaren kontra
Ekainaren 8an	Probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin betiko zerrenda argitaratzea
Ekainaren 13an	Gelen eta eserlekuen zerrenda
Ekainaren 14an	<p><b>Proba egitea:</b></p> <p>Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa Alameda de Urquijo, z.g. 48013 Bilbao</p> <p><b>Ordutegia:</b></p> <p>Deia: 15:00 Lehen zatia: 15:15 - 16:45 Atsedena: 16:45 - 17:15 Bigarren zatia: 17:15 - 19:15</p>
Ekainaren 22an	Behin-behineko kalifikazioak argitaratzea <ul style="list-style-type: none"> <li>o Norberaren noten kontsultak</li> </ul>
Ekainaren 24ra arte (12:00ak arte)	Alegazioak aurkeztea behin-behineko kalifikazioen kontra
Uztailaren 1ean	Behin betiko kalifikazioak argitaratzea <ul style="list-style-type: none"> <li>o Kontsulta pertsonalizatua</li> </ul> <p>Ikasleak saritzeko proposamena</p>
2016ko uztaillean	Ebazpena EHAAn, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena

## II. ERANSKINA

## IZENA EMATEKO ORRIA

## DATU PERTSONALAK:

<input type="checkbox"/> NAN:		Jaiotze-data: uu/hh/ee:	
<input type="checkbox"/> AIZ:		Sexua	<input type="checkbox"/> G <input type="checkbox"/> E
<input type="checkbox"/> Bestelakoa:			
Abizenak:			
Izena:			
Helbidea (kalea):			
Zk.:	Solairua:	Letra:	LH:
Udalerrria:		PK:	Telefono finkoa:
Sakelako telefonoa:		Posta elektronikoa:	

## EGINDAKO IKASKETAK:

Zer ikastetxetan amaitu dituzu Batxilergoko ikasketak?		
..... BHLra atxikita (ikastetxe pribatuetako ikasleentzat)		
LH:	Udalerrria:	PK
Batxilergoan ikasitako lehenengo atzerriko hizkuntza		<input type="checkbox"/> alemana <input type="checkbox"/> frantsesa <input type="checkbox"/> ingelesa
Egindako batxilergoko modalitatea		B1. Zientzia eta Teknologia
		B2. Giza eta Gizarte Zientziak
		B3. Arteak
		V1. Arte Plastikoen bidea
		V2. Arte Eszenikoen bidea

## ZER HIZKUNTZATAN EGIN NAHI DUZU PROBA?

<input type="checkbox"/> Gaztelaniaz
<input type="checkbox"/> Euskaraz

## MINUSBALIOTASUNIK EDUKIZ GERO, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:

<input type="checkbox"/> Minusbaliotasun-ziurtagiria
<input type="checkbox"/> Irizpen tekniko-fakultatiboa
<input type="checkbox"/> Orientazio-zerbitzuaren txostena eta Berritzegunearen txostena
<input type="checkbox"/> Beste mota bateko egokitzapen bat (denbora eta bitartekoak). Zehaztu:

[Oharra: atzeko aldean jarraitzen du]



PROBAKO LEHENENGO ZATIRAKO IRAKASGAIK					
Aukeratu modalitateko berezko irakasgai bat (Batxilergoko 2. mailan eginda)	Kodea	IRAKASGAIK	Zientzia eta Teknologia	Giza eta Gizarte Zientziak	Arteak
	PEB06	Biologia	x		
	PEB08	Marrazketa tekniko II	x		x
	PEB10	Fisika	x		
	PEB11	Matematika II	x		
	PEB12	Kimika	x		
	PEB15	Latina II		x	
	PEB17	Gizarte Zientziei aplikatutako matematika II		x	
	PEB18	Literatura unibertsala		x	x
	PEB19	Enpresako ekonomia		x	
	PEB20	Geografia		x	
	PEB21	Musika-azterketa II			x
	PEB23	Ikus-entzunezko kultura			x
	PEB25	Diseinua			x

PROBAKO BIGARREN ZATIRAKO AUKERATUTAKO IRAKASGAIK		
a) ariketa	Kodea	
<input type="checkbox"/> Gaztelania	PEB01	
<input type="checkbox"/> Euskara	PEB02	
b) ariketa		
<input type="checkbox"/> Alemana	PEB03	
<input type="checkbox"/> Frantsesa	PEB04	
<input type="checkbox"/> Ingelesa	PEB05	

AITORTZEN DU .....  
 ..... ikastetxean amaitu dituela Batxilergoko ikasketak 2016. urtean, eta  
**batez besteko nota** (erlijioa kontuan hartu gabe) ..... -koa izan dela.

ESKABIDEA egiten du 2015-2016 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziak eskuratzeko probetan parte hartzeko, eta  
 AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datu guztiak egiazkoak direla.

.....(e)n, 201 ko .....ren ..... (e)(a)n.

AITA, AMA EDO LEGE-TUTOREA  
 (Ikaslea adin txikikoa bada soilik)

INTERESDUNA

Izpta.:

Izpta.:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitzategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, sariaren deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Batxilergoko Sari Berezia» izeneko fitxategi batean sartuko dira deialdi hau kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapeneren berri emateko ere. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara, hain zuzen ere: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz. Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren egiaztatze beste erakunde publiko batzuetan.

[Oharra: ikastetxeko idazkaritzan utzi behar da paperezko dokumentu hau, ikasleak behar bezala izenpetuta eta dagokion sarrera-erregistroarekin, Agindu honetan araututako proben epaimahaiaren eskura]



2016ko maiatzaren 4a, asteazkena

IV. ERANSKINA  
 BATXILERGOKO SARI BEREZIAK  
 ONARTUTAKO ETA EZ ONARTATUKO IKASLEEN ZERRENDA

Deialdia:

Ikastetxea .....

Deialdian xedatutako eskakizunak betetzen dituzten eta Batxilergoko Sari Bereziak eskuratzeko hautaprobetan izena eman duten ikasleen zerrenda.

NAN	Abizenak	Izena	Onartua/Ez onartua	Zergatia

.....(e)n, .....(e)ko .....ren 201....(e)an

Zuzendaria (sinadura eta ikastetxeko zigilua)

Oharra: ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak bete beharreko dokumentua, dagokion iragarki taulan jartzeko ikusgai, Deialdi-Aginduaren Laugarrena.6 oinarri arautzailean ezarritakoaren arabera.

## V. ERANSKINA

## PROBA EGITEKO ZEHAZTAPENAK

- 1.– Tinta beltzez edo urdinez egin behar dira ariketak, epaimahaiak kontrakorik adierazten ez badu behintzat.
- 2.– Ariketek irauten duten artean, ezin da erabili sakelako telefonorik, PDARik edo antzeko gaitu elektronikorik.
- 3.– Proban landuko ditugun irakasgaia bakoitzeko berariazko ezaugarriak kontuan hartuta, honako ohar hauek adierazten dira:
  - Latina: hiztegia erabili ahal izango da, gramatika-gehigarririk gabe.
  - Fisika, Kimika eta Enpresako ekonomia: kalkulagailu zientifikoa erabili ahal izango da.
  - Matematika II eta Gizarte-Zientziei Aplikatutako Matematika II: kalkulagailu zientifikoa eta marrazketa-tresnak (erregela, konpasa...) erabili ahal izango dira.
  - Marrazketa Teknikoa II: ariketa egiteko beharrezkoa da arkatz gogorra (2H) eta biguna (2B), erregela milimetratua, eskuaira, kartaboia eta konpasa eramatea.
  - Diseinu eta Ikus-entzunezko Kultura: gomendagarria da zera edukitzea, eskuaira, kartaboia, konpasa, lapitza eta borragoma, errotuladore beltza; eta kolorea emateko materialak (koloreko lapitzak, koloreko errotuladoreak...).
  - Gaztelania, Euskara eta Atzerriko Hizkuntza: ezin da hiztegirik erabili.
  - Analisi musikala: CD musika-erreproduzitailea eraman beharko dute.